



Saharara bidaltzeko janari bilketa egingo dute gaur goizean dendetan

SAHARA bidaltzeko janaria ari dira biltzen, eta horretarako kajak jarri dituzte, besteak beste, Biterin. Gaur supermerkatuetan ariko dira janaria biltzen. Lagundu nahi duenarentzat, gaur goizeko 09:00etan egin dute hitzordua, Irizar tabernan. ||

Txistorra jateko aukera Plaza Berrin eta Orkolaga auzoan

SANTO Tomasen bueltako txistorradak izango dira gaur herrian. Plaza Berrin, taloak, txosna eta erremoria izango dira, besteak beste. Orkolagan, haurrentzko jokoak, gaztainak, sagardoa eta toka txapelketa. /3

❖ MUSIKA

Ozenki abesbatza eta Musika Bandaren kontzertua gaur Milagrosan

Gabonak badatozela eta garaira egokitutako kontzertua eskainiko dute gaur Ozenki abesbatzak eta Musika Bandak. *Ator ator, Gauerdian, Mesias Sarritan, Gospel Train* eta *Haur eder baten bila* dira errepertorioko abestietako batzuk. Gaur 19:45etan, Milagrosan. ||

Hernani Musika Eskolako abesbatza eta Hernasax saxofoi taldearen kontzertua gaur

Beste kontzertu bat ere izango da gaur, Milagrosan, Hernani Musika Eskolako abesbatzarena eta Hernasax saxofoi taldearena. Gabonetako abestiak eta beste leku kantuak tartekatuko dituzte. Gaur arratsaldeko 17:30etan, Milagrosan. ||



Din dan don, Gabonak gabon

GABON Kanten Jaialdia izan zen ostegunean, San Joan Bataiatzailearen parrokian. Jendetza bildu zen emanaldian, abestera eta ikustera joan zirenen artean. Inmaculada ikastetxea, Elizatxo ikastola, Urumea ikastola, Langile ikastola, Henani Musika Eskola, Doinu Zale Musika Eskola, Parrokiko korua, Ozenki abesbatza, eta Kantuz abesbatzako kideen artean, guztira 500 pertsona izan ziren kantari. Aurten ere Gabon kantez osatutako errepertorio zabala eskaini dute. ||

GAUR KRONIKAN

Plenoko erabakiak: Kaxkoko trafikoa kontrolatzeko sistema; Torturaren kontrako mozioa/2

Gobernu Taldea: soldata eta dirulaguntzen inguruko datuak/2

EAJ-PNVren prentsa oharra /2

Errapia festa gaur/3

KIROLAK: errugbia, futbola, pelota, arrauna ... /6-7

Laburrak /2, 8

SANSONATEGI
Martinez/10001 11 - 943 33 15 72 - www.sansonategi.com

Gaur, larunbata, afaria eta dantzaldia,
XARITZA taldearekin. Giro ederra!!
(Luzotzak alde aurteko egitea eskertuko da: 943 33 15 72)

Zatoz !!

J A T E T X A

MENUA:
Iberiar konbinatuak
Pomax botatako sistema
Zainzuri epelak
Lupia labean
Azpizuma lagunparrietan
Ardia krisanisa
Kafea, kupa, purua... eta dantzara!

40 euro

ZABALA OKINDEGIA

ZORIONRE
ETA
EGUBERRI ON !!

1947 urtez geroztik
Kale Nagusia, 43an

YOLANDA estetika zentrua

Fotodepilazio berria
Gaztatu tratamendua Argi bidez
Antiakne tratamendua
Azal mantsoak
Plataforma bibratzailera

**ZORIONAK
eta
URTE BERRI ON !!**

Prezio egokituak eta pertsonalizatuak

estetika@yolanda.info@egodo.com ATZETA 2. bulego. Tfnoa: 913 55 32 78

PLENOKO ERABAKIAK

Herriko zenbait kaleetan kotxeen sarrera kontrolatzeko araudiari hasierako onarpena eman dio Plenoak

Atzieta kalean aste honetan aritu dira sistema jartzeko lanekin. Etorkizunean Kale Nagusian, Kardaberaz kalean eta Plazan jarriko da sistema.

KAXKOAN kotxeak ibiltzea mugatu nahi du Udalak eta aste honetan bide horretan urrats garrantzitsuak eman dira. Alde batetik, Atzieta kalean kotxeen sarrera mugatzeko kontrol sistema jartzen aritu dira, eta bestetik, osteguneko plenoan Kaxkoko kaleetan kotxeen sarrera kontrolatzeko araudiari hasierako onarpena eman zitzaion. Araudiak Gobernu Taldearen, PSE-EE, EAJ-PNV eta PPren aldeko botoekin egin zuen aurrera eta EA eta EB abstenitu egin ziren.

Araudiari hasierako onarpena emateak esan nahi du, erakusketan jarriko dutela (hirigintza departamentuan, 4. pisua) eta alegazioak egiteko aukera izango dela.

Atzietan, Kale Nagusian, Kardaberaz eta Plazan

Atzieta, Kale Nagusia, Kardaberaz kalea eta Plaza dira araudi honetan sartzen diren kaleak, hau da, kale hauetan jarriko da kontrol sistema. Kale hauetan sartu ahal izateko txartel magnetiko batzuk banatuko dizkiete sartzeko baimena duten kotxeen gidariei.

Honakoak dira baimena eskuratu ahal izango dutenak: kale horietan garaje plazak dituztenak, banatzaileak, Atzieta kaleko tailetako langile eta bezeroak, kotxe ofizialak, ambulanzak eta larrialdietako zerbitzua ematen duten kotxeak eta auto taxi lizentzia munitzionala duten kotxeak (zerbitzua ematen ari direnetan). Bestalde, Atzieta kalean sartu ahal izango dute, Kale Nagusian, Kardabera-

● **Araudiaren arabera, Atzieta kalean aparkatu ahal izango da, seinalizatutako tokietan, astelehenetik larunbatera, 06:00-20:00etara, eta gehienez ere ordu betez.**

zen, Atzietan, Karkaban eta Gudarien Plazan bizi eta bertan enpadronatuta daudenak, eta kotxea ere helbide berean enpadronatuta dutenak.

Atzieta kalean edozeinek aparkatu ahal izango du, seinalizatutako lekuetan, baina astelehenetik larunbatera goizeko 06:00etatik 20:00etara, eta gehienez ere ordu betez.

Ordenantzan, aurretik aipatutako multzo ezberdinen ordutegiak zehazten dira, baita baimena eskuratzeko aurkeztu beharreko paperak ere.

Torturaren kontrako mozioa

Osteguneko plenoan, torturaren kontrako mozio bat ere onartu zen. Gaia Giza Eskubide Batzordean aritu dira lantzen azken hilabeteetan, eta batzordean landutako testu bat aurkeztu zen. Testuaren alde Gobernu Taldeak egin zuen hasiera batean, baina Alkateak akordiorik lortu ez zuten puntuak kentzea erabaki zuen. Puntu horiek kenduta, mozioa onartu egin zen, Gobernu Taldea, EAJ-PNV, EA eta EBren aldeko botoekin. PP ea PSE-EEK kontra bozkatu zuten.

Mozioan torturak salatzen dira

● **Torturaren kontrako mozioa ere onartu zen Plenoan. Bertan, besteak beste, zehazten da herriko pertsona bat inkomunikatzean hartu beharreko neurriak.**

eta Estatuko Gobernuari eskatzen zaio Lege Antiterrorista indargabetzea eta atxilotuak ez inkomunikatzea. Auzitegi Nazionala desagertzea ere eskatzen da mozioan, baita atxilotuen giza eskubideak errespetatzea ere. Horrekin batera eskatzen da, «tortura eta inkomunikazio sufritu dituzten atxilotuen kontrako prozesu judizialak bertan behera uztea» eta torturapean egindako deklarazioak frogara bezala ez erabiltzea. Giza eskubideen aldeko defentsa ere egiten da testuan eta eskubide hauen urraketa sendo gaitzesteko konpromezua hartzen da. Justizia administratiboari eskatzen zaio «argi ditzala tortura salaketa guztiak, erantzuleak kondenatuak izan daitezen».

Hernaniko pertsonaren bat inkomunikatzen denean, hartu beharreko neurriak ere zehazten dira onartutako testuan: torturari buruz hartutako erabakiak Auzitegi Nazionalera bidaltzea, udalean ordezkari politikoak duten talde guztiek adostutako idatzi bat dagokion pertsonari bidaltzea eta inkomunikazioa salatzeako prentsaurrekoa ematea udaletxean ordezkariak duten alderdi politiko guztiek. ■

GOBERNU TALDEA

«EAJ-PNVko bozeramaileak soldata eta diru laguntzen inguruan emandako datuak ez dira zuzenak»

EAJ-PNVko bozeramaileak, Andoni Amonarraizek, prentsa bidez emandako soldata eta dirulaguntzen datuak zuzenak ez direla azaldu zuten Gobernu Taldeko kideek, osteguneko Plenoan. Andoni Amonarraizek prentsa oharrean aipatu zuen «Gobernu Taldeak 2 urtetan soldatak %10,2 igo dituela eta taldeei emandako diru laguntzak izoztu egin dituela». Gobernu Taldeak aipatu zuen EAJ-PNVko bozeramaileak ez dituela datuak behar bezala interpretatu: «zergatik soldaten kasuan bi urtetako igoera hartu du kontuan eta dirulaguntzen kasuan azken urtea bakarrik? Bi datu horiek konparagarriak izateko, diru laguntzen azken bi urteetako joerari erreparatu beharko lioke EAJko bozeramaileak». Gobernu Taldeko kideek azaldu dutenez, azken bi urteetako datuak kontuan hartuta, «soldatak %10,2 igo dira, eta diru laguntzak %20,11». Bestalde, aipatu dute Gobernu Taldeko arduradunek, garai bateko Gobernu Taldeko kideak «baino dexente gutxiago irabazten» dutela: «nahiz eta soldatak igo aurreko legealdiko Alkatea eta zinegotziek baino 1000 euro pasa gutxiago irabazten dugu, eta harro gaude erabaki horrekin». ■

EAJ-PNV

«Egia da soldatak igo direla, baina diru laguntzak 2009ko aurrekontuan izoztu direla esatea falta zitzaidan»

ANDONI Amonarraizek hainbat azalpen eman ditu, dirulaguntza eta soldaten inguruko prentsa oharra sortutako eztabaidaren aurrean: «osteguneko plenoan Gobernu Taldeko kideek informazio erreala eman ez nuela aipatu zuten». «Esan zidatenez, akatsa etorri zitekeen, diru laguntzen kasuan, 2009 datuak bakarrik kontuan hartzetik, eta arrazoi dute» aipatu du. Andoni Amonarraizek dioenez, «egia da soldatak %5,2 igo direla 2008an eta %5 igoko direla 2009an, inork ez zidan kontrarik esan, baina nire artikuluan esatea falta zen, diru laguntzak 2009ko aurrekontuan izoztuko direla».

Bukatzeko EAJ-PNVko bozeramaileak Alkatea zoriondu du «torturaren aurkako mozioa bozkatzerakoan kalitateko botoa ez erabiltzeagatik». Bozeramaileak pozik agertu da «oraingo honetan kontsentsua gailendu delako inposaketa beharrean». ■

❖ MUSIKA

Txistu kontzertua bihar Milagrosan

Udal Txistulari Bandak Eguberritako kontzertua emango du bihar Milagrosan. *Sei doinu xuberotar, Eguberriko kantak, Gabon abesti bilduma* eta *Ordoitz piezak* joko dituzte. Miren Zubillaga pianojolea izango dute lagun. Bihar eguerdiko 13:00etan, Milagrosan. ■

❖ KIROLDEGIA

Ur jaialdi erraldoia gaur igerilekuan

Gaur goizean ur jaialdia izango da igerilekuan eta puzgarri erraldoiak jarriko dituzte. Parte hartzeko beharrezkoa da igeri egiten jakitea. ■

Igerilekua itxita

Ur jaialdia dela eta igerilekua itxi egingo dute gaur goizean zehar. ■

❖ OSIÑAGA AUZO ELKARTEA

Kuota eta mus txapelketa bihar

Asteburuan urteko kuota jasoko dute etxex-etxe Osinagan. Kuota 10 eurokoa da eta trukean euro bateko Gabonetako Loteria jasoko dute ordaintzen dutenek. Horrekin batera zozketa batean parte hartzeko boletoa eskuratuko dute. Saria Gabonetako saskia izango da. Bestalde, bihar, mus txapelketa izango da Elorrabi sagardotegian. Izen emateak 20 euro balio du eta sari ederrak izango dira aurreneko lau bikoteentzat. 16:00etan hasiko da txapelketa. ■

❖ LAB SINDIKATUA

Manifestazio nazionala gaur Iruñean

Manifestazio nazionala izango da gaur Iruñean, «politikari eta bankeroen entxufismoaren kontra, eta soldaten jaitsiera eta eskubide sozialean murrizketaren kontra». Herritarrak animatu dituzte joatera. 17:00etan, Gaztelu plazatik. ■

Hasi dira Apeadero eta Kaxkoa lotuko dituen igogailuko lanekin

Lanak direla eta apeaderotik haur parkera bitartean dagoen oinezko bidea itxi egingo dute.

APEADEROA eta Kaxkoa lotuko dituen igogailuko lanak hasi ziren atzo. Lanak direla eta apeaderoa eta haur parkea lotzen dituen oinezkoen bidea itxi egingo dute, baina, Atzietaserainoko eskailerak erabili ahal izango dira.

786.900 euro

Urbycolan enpresa ari da igogailuko obra burutzen eta lanek 786.900 euroko aurrekontua dute. Udalak

espero du lanek 4 hilabete eta hiru aste irautea, beraz aurreikuspen horien arabera, igogailua maiatza aldera izango litzateke erabiltzeko moduan.

Igogailuaren ezaugarriak Igogailu berria 20 pertsona sartu ahal izango dira. Bizikletak ere sartu ahal izango dira. Sarrera Karabeletik apeaderora, oinezkoak pasatzeko dagoen tunel txikiaren parean

izango du, zertxobait Barrantza aldera. Irteera aldiz Atzietan izango du, haur parkea dagoen horretan.

Igogailuaren sarreran, behealdean, eserlekuak jarriko dira eta bizikletentzako aparkalekuak. Goialdean, komun publikoak jarriko dituzte.

Igogailua bera kristalezkoa izango da eta erabil-tzerakoan, bertatik, herriko parajeak ikusi ahal izango dira. ||



Hasi dira igogailua egiteko lurrak mugitzen.

Errapia elkarteko festa izango da gaur Zikuñagan; elkarteko kideen lanak ikusteko aukera paregabea

Goizean haurrentzako eskulanak izango dira, eguerdian bazkaria, eta arratsaldean emanaldiak.

SEIGARREN urtez jarraian, Errapia Hernaniko artisten taldeak Errapia Festa antolatu du gaurko. Beraz, goiz eta arratsalde sormena izango da nagusi, Zikuzulon, Zikuñagako artelekuan (garai bateko eskolak).



Aurten ere muralak pintatuko dituzte.

Egun osoko egitaraua Egun osoko egitaraua izango da gaur Zikuñagan. Goizeko 11:00etatik aurrera haurrentzako eskulanak izango dira, eta urtero bezala, Zikuzulo eraikineko paretan muralak egingo

dituzte. Eguerdiko 14:00-etan bazkaltzeko elkartuko dira, bertan.

Arratsaldean emanaldiak izango dira: 16:00-etan, lorearen nahia dantza emanaldia; 16:30etan

bideo emanaldia; 17:30-etan Adarragako txokolatada; 18:00etan musikarekin girotutako poesia emanaldia; eta 19:00-etan Barruren musika saioa. ||

Santo Tomasetako jaialdia izango da gaur Plaza Berrin eta Orkolagan

Bihar, Goiz Eguzkin, Gazte Txokoan eta Zaharren Egoitzan egingo dituzte Santo Tomasetako txistorra jateak.

ASTEBURU honetan ez da txistorrarik faltako herrian. Taberna eta dendetan jartzen dituzten pintxoek gain jaialdiak ere antolatu baitituzte herriko zenbait lekutan.

Jaialdia Plaza Berrin

San Joan Konpartsak antolatuta, goiz eta arratsalde, jaialdia izango da gaur Plaza Berrin, eta egun osoan txosna izango da bertan jan edanekin. Goizeko 11:30etatik 14:30etara, talogileak izango dira eta gerturazten denak txistorra taloan bilduta jateko aukera izango du. Arratsaldeko 18:00etatik 20:30etara,



Erpeletatik etorritako talde batekin erromeria izango da Plaza Berrin. Eta nola ez, arratsaldean ere izango da txistorra jateko aukera.

Txistorrada Orkolagan Orkolagan ere izango da gaur txistorra jateko

aukera. Goizeko 11:00-etatik aurrera, sagardoa, txistorra eta gaztainak izango dira aukeran. Goizeko 11:30etan umeentzako jokoak antolatu dituzte. Eguerdiko 13:30-etan, toka txapelketa izango da auzoa, girotzeko. Izen momentuan bertan eman behar da.

Bihar ere bai

Bihar, Santo Tomas egunean, txistorra jateko aukera izango da: goizeko 11:00etatik aurrera Goiz Eguzkin eta arratsaldeko 17:00etan Zaharren Egoitzan. Gazte Txokoan ere egingo dute txistorrada. ||

gabonetako eskaintzak lamina eta kuadroctan

imets markagintza

nezuko ondaregia: ezkerreko aldean gaurko goizeko 11:00etatik aurrera eta arratsaldeko 17:30etatik aurrera; eskuineko aldean gaurko goizeko 11:00etatik aurrera.

Zubiundu Poligonoa CI - Nabe 4 - 20120 Hernani
tel: 943 334 199 - 800 774 771 - e-mail: imets@imetsmarkagintza.com
www.imetsmarkagintza.com

MAC'S KEBAB

Kebab, DEASKA, PORDU (salsina), PIZKAK, ENTZALADAK, TARTIL.

NA HANDEI PLAZA

Berriro jan ezitza Ezerra erromeriko

EGUBERRI ON !!

Location: 17. bulego Tel: 855 40 58 69

TRANBIA TABERNA

ZORIONAK ETA EGUBERRI ON

EGUNEKO MENUA
BAZKARI ETA AFARIETAKO ERREBERBAK
JANARI GUZTIA ERAMATEKO AUKERA

TFNOA: 843 33 69 49.
MARIELUTS KALEA, 2 - HERNANI
ASTELEHENA ITXITA.

Eztulka-eztulka, badijoa urte hau ere, baina aurretik marranta gutxiko ahots batek bisitatuko gaitu. Ruper Ordorika (Oñati, 1956) Biterin izango dugu gaur, 22:30etan, zuzenean,

sala betean, urteko bere azken kontzertuan. Griperik gabe ibili da aurten; osasuntsu dator, umorez; eta jator asko erantzun ditu, eztulka-eztulka egindako galdera hauek.

RUPER ORDORIKA

«Junkerari emandako diru-laguntza tanta bat da ozeano batean»

Gorka Bereziartua

Urteko zure azken kontzertua izango da gaurkoa. 2008an disko berria aterata, asko aritu zara jotzen. Zer moduz joan dira orain arteko kontzertuak?

Hamar t'erdietan diskoa atera zen udaberrian, eta geroztik hasi nintzen kontzertuekin. Ez naiz disko horretan oinarritu kontzertuetarako. Zuzeneko diskoa izan da eta aldatzeko oinarria eman dit: berrantolatu dut taldea goitik behera, eta orain laukotean gabilta: Asier Oleaga bateriarekin, Lutxo Neira baxuarekin eta Arkaitz Miner gitarrarekin, mandolina eta biolinarekin. Asko ibili gara, han eta hemen; disko berriak arnas haundia eman dit taldearekin berriz aritzeko. Izan ere, aurreko urtean adibidez, Jon Pirisekin bakarrik aritu nintzen akustikoan, *Memorian mapan* diskoa beste modu batera egina zegoelako.

Aldaketa handia dago baten musikatik bestearenera. Zergatik?

Aurrera egiteko, ez dut eza gutzen beste metodorik. Musikariarekin sortzen den elkarbizketa da, oso inportantea niretzako, eta hasiera hasieratik ibili izan naiz holatsu. Hernaniko honek aurtengo kontzertu bolada itxiko du, eta, seguruenik, tarte batean



ez gara ibiliko. Bertsolariek esaten duten bezala, nahi dut ganbara bete.

Zuzeneko diskoan badaude, alde batetik, zure azken aldiko

diskoetako kanta batzuk. Baina, "Rupertorioan" sartu dituzu aspalditik jotzen ez zenituenak ere, adibidez, "Zenbait bertso xeibre". Grabatu genuen kontzertuko

errepertorioa izan zen oso zabala, baina, gero, entzutean, erabaki genuen ez errepikatzea aurretik egin genuen zuzeneko diskoko, *Gaur*-eko, kantarik. *Zenbait bertso xeibre*

“ Hernaniko honek aurtengo kontzertu bolada itxiko du, eta, seguruenik, tarte batean ez gara ibiliko. Bertsolariek esaten duten bezala, nahi dut ganbara bete”

hori ez da izan inolaz ere erraza talde batekin jotzeko. Orain ere ez dugu sartzen errepertorioan: koplak dira, bereziak. Baina grabatzeko egunean ikusi nuen jendearen erantzuna, kanta buruz zekitela. Niretzako kanta hori... pentsa, lehenengo diskotik datorren kanta da! Sartu behar zela ikusi nuen. Gainera, iruditzen zait, nonbait bilatu geniola buelta bat.

Asmatzekorik ez, Herdoilarena... beti hor egon diren kanta batzuk daude *Hamar t'erdietan* diskoan: oso ondo erakusten du taldea zer zen grabatu genuenean. Zazpi urtez aritu ginen, eta hori, musikaren mundu honetan, gutxitan gertatzen den gauza da.

Eta, behin horretara iritsita, erabakitzen duzu aldatzea. Niretzako, onartu behar dizut, ez zen batere erraza izan. Baina ez arrazoi musikalgatik, alde hori nahiko garbi ikusten nuen. Buruan beste zerbaitekin entzuten nuen,

TELEMAR

Elkano kalea 13 - Nagusia 7 - HERNANI -

**Orain inoiz baino merkeago !!
Zatoz gure prezioak ikustera !!**

Ezin hobek !!

(existenziak bukatu arte)

**ZANUSSI
ZWF682**

~~349€~~
orain **314€**

Fuzzy kontrol elektronikoa
HydroSystem teknologia
21 programa



**EVE: -105€
Azken prezioa: 209€**

**ZANUSSI
ZK-34/11 F6**

~~549€~~
orain **494€**

**EVE: -85€
Azken prezioa: 409€**

Kapazitate totala: 340 L
Kapazitate utila: 245 L
Dynamic power NF



Memoriaren mapan-en soinutik urrutiratzen joan nintzen. Baina, maila pertsonalean, zaila izan da. Urte luzetako harreman estua izan da, ez dago larregi esan beharrik: horrenbeste urtez elkarrekin arituta, harreman pertsonaletan sartzen zara beste esparru batzuetan. Aldaketa sakon xamarra izan da, baina, musika aldetik, zail ikusten nuen aurrerago joatea. Hala ere, ziklo hori ez dut itxita ikusten. Hor dago, eta igual hurrengo bizitza batean... (barre egin du).

Diskoa publikatu duzula esan dugu, CDan. Baina, azken aldian ematen du formatu hori atzean geratzen ari dela. Internetekin eta ordenagailuekin asko aldatu al da zure lan egiteko modua?

Egile bezala, aldaketa haundiak dakartza. Diskoak grabatu ditzakezu beste era batera. Horrek ikaragarritzko produkzio pila ekartzen du, batak bestea ezkututzen du... Beste harreman bat sortzen da musikarekin. Gure munduan gertatzen ari den aldaketa haundienetakoa da: CDen mundua bukatzera doa, eta inork ez daki nondik aterako den. Beti esaten dut aldaketa haundi baten hasieran gaude-la, eta oraindik ez dakigu nora joango den. Horrek baditu bi alde: bat, aski positiboa, jendeak musika eskura daukalako; bestea berriz, erabat aldatu dela musikaren zeregina. Orain sekulan entzungo ez ditugun musikak dauzkagu denok etxean. Kontsumitzaileak gara, eta musika kontsumo gai denez gero, aldatzen da bere balioaren puska bat.

Balioa aipatu duzunez, musikaren balio ekonomikoaz ere galdetu nahi nizun:

Eusko Jaurlearitzak Kepa Junkerari eman dion 702.000 euroko diru-laguntza zer iruditzen zaizu? Musikari askok bezala, nik ere sinatu egin nuen horren kontra atera zen testua. Aski korrektoa zen ohar hori, 500 lagunek sinatu dugu gutxi gorabehera eta bakoitzak Kepari buruz bere iritzia izango du, baita sinatzen ez duten



Ruper Ordorika (Argazkiak: Eli Gorostegi).

askok ere. Baina hor auzitan dena ez da bere eginkizuna, horrelako diru-laguntzek konparatiboki zer esan nahi duen baizik, eta diru hori emateko eskainitako arrazoiak zeintzuk izan diren. Arrazoi horiek, nik uste dut onartezinak direla, kolokan jartzen dutelako gure aurrekoek egindako lana. Euskal kantua modernizatze horretara eraman behar baldin

bada, eta inter-kulturalitatearen izenean horrelako gauzak egin behar baldin badira... ba... baten batek ez du deus uler-tzen. Ez da tanta bat baizik, ozeano batean. Benetan auzitan dagoena da, nola kudeatzen diren gauzak kulturaren alorrean. Zein modu arinean.

Baten batek esan du, nonbait entzun dudanez, gai tristetela dela. Konforme nago.

700.000 euro: batzuetan horrekin egiten dutena da... ez dakit... aireportu bateko aparkalekuko marrak margotzea. Ez da deus. Baina, hain zuzen ere horrek adierazten du, kultura nola dagoen kontsideratua. Eta iruditzen zait alde horretatik, onartuta gauza triste dela, izango dela onuragarria; behintzat ikusten delako badagoela hemen,

“Gure munduan gertatzen ari den aldaketa haundienetakoa da: CDen mundua bukatzera doa, eta inork ez daki nondik aterako den.”

honetaz, beste modu batera pentsatzen duenik.

Mikel Laboa hil den urtea bukatzera goaz. Zer izan da bera zuretzat?

Ba... (isilik egon da denbora luzez). Hain dut hurbilekoa, non ez den erraza erantzuten. Niretzako, Mikel entzutea, mutiko denboretan, izan zen... errebelazio bat. Hori da hitza. Aurkikuntza bat. Oso goiz gertatu zen, eta gero barneratu egiten duzu, bilakatzen da erreferente bat. Bere bozak biltzen ditu bere joera guztiak: kantu zaharra gaurkotzeko, aurrera begira egin zituen "Lekeitioak"... Bere sasoiako ikur bat da. Denbora poliki-poliki joaten ari da, egunak pasatzen doaz, eta are gehiago konturatzen zara gauza batzuetaz. Niri dagokidan partetik, pertsona oso abegikorra izan zen, asko interesatu zen nire eginkizunarekin. Hori baloratzen oso zaila da: maisu denak horrelako jarrera erakusten duenean, asko balio du norberarentzako.

Uste dut bere eginkizun guztia ildo batean, ez bitan edo hirutan, burutu zuela; intuizio oso indartsua eduki zuen; eta, uste dut bere bozak iraungo duela, gure bihotzean.

Gaurko kontzertua nola bukatuko den ezin dugu jakin, baina zerekin hasiko duzun esango al zeniguke?

Egin kontu-rekin hasten gara aurten, normalean, eta uste dut Hernanin ere horrela egingo dugula. Ez dut eza-gutzen aretoa eta ikusiko dugu... Gustura gabiltza azkeneko emanaldiekin, eta badut, ziklistek esaten duten bezala, sentsazio ona (barre egin du). ■

ERAKUSKETA BERRIA

LOGOA

SUKALDE ETA KOMUNEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPATRATUAK
ELEKTROGAILUAK
MAHAI ETA AULKIAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA



LANTEGIA:

II Landa 56,
1. solairua,
25 B lokala
HERNANI



ERAKUSKETA:

Perkaitelgi 10W
Anlizola
HERNANI
☎ 943 55 06 88



Aristrogi Sukaldeak 30 urte daramazki Hernanin altzariak egiten. Orain denda berria zabalik du eta bertan, sukaldako altzariak gain, komuneko altzariak, armairu enpatratuak, elektrogailuak... aurkituko dituzue. Anlizola auzko Perkaitelgi kalea 10W zenbakian hartuko zaituztegu.

◆ PELOTA

Palako finalerdia jokatuko dute hernaniko jubenil eta seniorrek, gaur Ibarren

Bihar Esnal eta Gorrotxategi Gipuzkoako eskuz binakako finala jokatu dute Bergaran

HERNANIARRAK ezin hobeto dabilta azken aldian pelotan, eta horren seinale dira azken asteburuetan jokatzeko ari diren partidu garrantzitsuak.

Paletan finalerdietako partidua

Jubenil eta senior neskek paletako finalerdiak jokatu dituzte. Jubenetan Hernaniko bi bikote izango dira aurrez aurre; Ane Lizeaga-Eneritz Perez/Amaia Irazustabarrena-Eli Gutierrez. Seniorretan Garbiñe Tijerok eta Leire Lukasek

Pierola eta Argainen kontra jokatu dute, Real Sociedad taldekoak. Partiduak, gaur 16:00etan, Ibarren.

Gipuzkoako txapelketa

Esنال eta Gorrotxategi hernaniarrek eskuz binakako gipuzkoako txapelketako finala jokatu dute bihar, 2garren mailakoa. Aurkariak Usurbilgo Huizi eta Txapartegi izango dira. Hernaniarrek sasoi betean daude eta finala irabazteko faboritoak dira. Partidua Bergaran 10:00etan hasiko den jaialdiko 2garrena izango da. ||

◆ ERRUGBIA

Hernani nagusitzeko moduko partidua gaur Landaren, Belenosen aurka

Partidua arratsaldeko 15:30etan jokatzeko da, negua dela kontuan izanda, azkar iluntzen baitu.

HASIERA batean partidu eroso izango du gaur Hernaniko errugbi taldeak Landaren. Joan den asteko helburua liderrari, Gernikari, irabaztea lortu ez zuten arren, indartsu eta gogotsu dira hernaniarrek gaurko partidua irabazteko.

Belenosen aurka

Hernanik Belenosen aurka jokatu du gaur. Belenos azken hirugarrena da sailkapenean eta hernaniarrendik 17 puntura dago. Hernani berriz, nahiz eta joan den astean

galdu, goiko postuetan mantentzen da, bigarren, 25 punturekin; Gernikagandik 3 puntura. Gaur irabaziz gero, berriro ere Gernikarekin puntutara berdinduta jartzeko aukera izango luke talde txuri berdeak.

Ordutegia aurreratu dute

Partidua Landaren jokatu da arratsaldeko 15:30etatik aurrera. Normalean partidua beranduago jokatzeko arren, negua izanda lehenago iluntzen du, eta eguneko argia aprobetxatzeko aurreratu egin dute. ||

◆ SASKIBALDIA

Jubenilek bakarrik jokatu dute, gaur kiroldegian Oiarsoren aurka

Asteburu honetan, Hernaniko saskibaloitza taldeetatik jubenilek bakarrik izango dute partidua. Aurkaria Errenteriako Oiarso taldea izango da. Partidua, gaur, arratsaldeko 16:15etatik aurrera Kiroldegian. Bestalde, senior taldeak asteburuan jokatu beharrean, ostegunean jokatu zuen Cafes Aitonaren kontra. Joan den asteburuan liderraren aurka galdu eta gero, hernaniarrek, itxuraz, partidu zaila zuten ostegunean Cafes Aitonaren kontra; hauek bi partidu bakarrik irabazi dituzten arren, talde zaila izan ohi da. Hala ere, ostegunean hernaniarrek ez zuten oso partidu ona egin, baina azken laurdenean emaitzari buelta ematea lortu zuten; partidu osoan berdinduta ibili baitziren. Partidu hau urte honetako azkenekoa izan zen hernaniarrentzat, eta Roge Miguez taldeko entrenatzailearen esanetan «ostegunean irabazi eta gero, Hernanik ezin hobeto bukatu du 2008garren urtea. Urte osoa kontuan izanik, hau da, joan den urteko denboraldia eta oraingoa, 21 partidu irabazi ditugu eta 4 galdu». ||



◆ WATERPOLDIA

Seniorrek eta jubenilek jokatu dute gaur, biak etxean

Asteburuan izango diren waterpoloko bi partiduak gaur jokatu dira kiroldegian. Seniorrek Castellaeren aurka jokatu dute, 14:00etan. Jubenilek berriz, Askartzaren aurka, 15:00etan. ||

◆ ARETO FUTBOLA

Partidu garrantzitsua jokatu du gaur Yone Boutiquek Gure Txokoaren aurka

Yone Boutique areto futboleko taldeak Lesakako Gure Txokoaren aurka jokatu du gaur. Partidu zaila eta garrantzitsua izango da, talde lesakarra bigarrena baita sailkapenean. Julen Giraldo taldeko entrenatzailearen esanetan «ikusteko, partidu polita izango da gaurkoa, bi taldeek duten guztia emango baitute. Hala ere, lesio batzuen ondorioz, gure taldeko jokalariek ezin izango dute partidua jokatu, eta hori arazoa izan daiteke guretzako. Bestela, partidu ona izatea espero dugu eta bide batez, hiru puntuak etxean geratzea; horrela, sailkapeneko goi postuetan mantetzea lortuko dugu». Partidua gaur, arratsaldeko 18:30etatik aurrera kiroldegian. ||

◆ BOLA

Olentzero sariko tiraldia gaur Zerainen

Bolari hernaniarrek Zerainen dute gaur hitzordua, Olentzero sariko tiraldia jokatu baita, 16:00etatik 17:00etara. ||



ESKOLA KIROLA - JOAN DEN ASTEBURUKO EMAITZAK

SASKIBALDIA

Alebinak	Langile B-Elizatzxo C	127-16
Alebinak	Langile A-Elizatzxo D	48-4
Alebinak	Urumea B-Inmaculada	56-18
Alebinak	Urumea A-Elizatzxo B	48-16
Infantil mut.	Urumea HKE-Ikasi	20-58
Infantil mut.	Talaia-Elizatzxo HKE	22-57

PALA

Alebin nesk.	Langile A-Langile C	20-17
Alebin nesk.	Langile B-Urumea B	20-13
Infantil nesk.	Langile A-Urumea	16-20
Infantil nesk.	Elizatzxo A-Langile C	20-18
Infantil nesk.	Langile B-Langile D	20-18

FUTBOLA

Infantil	Elizatzxo CDH-	6-11
Infantil mut.	Urumea-Amara	2-1
Infantil	Hernani-Aralar	1-1
Infantil	Urnieta-Lan-Uru	8-0

PELOTA

Alebinak	Langile F- Langile K	4-1
Alebinak	Langile J- Elizatzxo	4-3
Alebinak	Langile G- Langile C	3-4
Alebinak	Langile I- Langile D	3-4
Alebinak	Langile H- Langile L	1-4
Alebinak	Langile E- Langile B	3-4

Atal honen babesle:

HERNANIKO UDAL KIROL PATRONATUA

◆ FUTBOLA- Gorengo Maila

Partidu zaila izango du gaur Hernanik Berioaren kontra

Partidua arratsaldeko 16:00etan jokatuko da, Zubipen

AURKARI gogorra hartuko du gaur Hernanik etxean, Donostiako Berio taldea alegia. Talde zaila da Donostiarra eta denboraldi oso ona ari dira egiten; bosgarren daude sailkapenean, lidertzatik 4 puntura. Hernaniarrak berriz, kolpe gogorra hartu zuten joan den astean Añorgaren kontra, eta gaur irabaziz gero, garaipen handia izango da.

Bestalde, partidu hasieran bi taldeak Euskal Herriko selekzioaren aldeko pankartarekin aterako dira zelaira; azken aldiak izan diren gora beherak direla eta, gainontzeko jokalariei elkartzasuna azaltzeko asmotan. ||



Hernaniarrak 10garren daude sailkapenean.

◆ TXANTXANGORRI ELKARTEA

Txakur eta guztiko ehiza txapelketako bigarren tiraldia

Igandean, Txantxangorri elkarteak antolatuta, txakur eta guztiko txapelketako bigarren eguna izango da. Aurtengo txapelketa bi egunetan ospatuko da, eta lehenengoa hilaren 14an izan zen. Egun horretako sailkapena honakoa izan zen: Cristobal Barragan, J. Miguel Costas, J. Martin Otaegi, Iñigo Diez, J. Manuel Loinaz, Emilio Crespo, Mikel Loidi, Iñaki Mendizabal, Iñaki Esnal, Juan M^a Ugalde, J. Pedro Yeregui, Jabier Oscoz, J. Antonio Aranjuelo, J. Francisco Tejada, J. Antonio Beraza, Gerardo Beraza, J. Maria San Sebastian, Peio Goreostegi, Ibon Dominguez, Juan Mauricio eta Iñaki Loyarte. ||

Arrantza esparruko baimenak

Arrantza esparruko baimenak Txantxangorri elkartearen daude dagoeneko. Baimenak Gipuzkoako Arrantza Federazioak ematen ditu eta Araxes eta Leitzarain ibaietan arrantza egiteko dira. Eskaera egiteko, eskaera orria eta karnetaren fotokopia federazioari bidali behar dira. Epea hilaren 31a arte dago zabalik eta eskaera bakoitzean lau arrantzalek har dezakete parte.



◆ ARRAUNA

Bateletan Federazio Trofeoa jokatuko da gaur Kontxan

Gaur arratsaldean Bateletan, Federazio Trofeoa jokatuko da Donostiako Kontxa hondartzan. Bertan, Hernaniko Arraun Elkarteko bi batelek hartuko dute parte, biak infantil kategorian. Parte hartuko duten beste taldeak honako hauek izango dira: Pasai Donibane, Tolosaldea A, Tolosaldea B, Orio, Zarautz, Getaria eta Castro Urdiales. Hitzordua, gaur, arratsaldeko 16:00etan Kontxako badian. ||

◆ ERREMONTEA

Ligaxkako lehen postua jokatuko dute gaur Galarretan

Tejados Aoiz Txapelketako partidua jokatuko dute gaur Zeberio II-a eta Agirrezabalak Urriza eta San Miguelen kontra.

TEJADOS Aoiz Binakako txapelketako final laurdenetako ligaxka bihar bukatuko da.

Gaurko partiduan, Galarretan, finalerdietarako sailkatutako bi bikote arituko dira

elkarren kontra: alde batetik Zeberio II-a eta Agirrezabala, eta bestetik, Urriza eta San Miguel. Gaurko partidua irabazten duenak, A taldeko lehen postua lortuko du.

Hortaz, lehen geratuz gero, finalerdietan Ezkurra eta Gazteluk osatutako bikotea saihestuko dute.

Partidua jaialdiko bigarren izango da, 16:00etan hasita. ||

KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA				PELOTA-Gipuzkoako Txapelketa			
Gorengo maila	Hernani-Berio	Zubipen	Gaur 16:00	Infantilak	Hodei Noble-Segura	Amasan	Gaur 16:00
Jubenila. Liga nazionala.	Hernani-Athletic Club	Zubipen	Bihar 11:45	Seniorrak	Esnal-Gorrotategi/Huizi-Txapartegi	Bergaran	Bihar 10:00
Jubenila. Lehenengo maila.	Mondragon-Hernani	Mojategin	Gaur 16:00	Paleta	Tijero-Lukas/Pierola-Argain	Ibarran	Gaur 16:00
Kadeteak. Ohorezko maila	Arrasate-Hernani	Mojategin	Gaur 11:00	Paleta	Lizeaga-Perez/Irazustabarrena-Gutierrez	Ibarran	Gaur 16:00
Infantilak. Ohorezko maila	Hernani-Hondarribia	Zubipen	Bihar 11:00	Kadeteak	Santxo-Aizpitarte/Tainta-Etxamendi	Burladan	Bihar 09:30
Infantil Txiki	Hernani-Arrasate	Zubipen	Gaur 11:30	ERREMONTEA			
SASKIBALOA				Ibarzabal-Etxezabal/Zulaika-Baleztena	Galarretan	Gaur 16:00	
Jubenilak	Hernani-Oiarso	Kirolegian	Gaur 16:15	Zeberio II-Agirrezabala/Urriza-San Miguel	Galarretan	Gaur 16:00	
ERRUGBIA				Uterga-Triarte/Iñigo-Badiola	Galarretan	Gaur 16:00	
Senior A, Ohorez B.	Gernika-Hernani	Urbietan	Gaur 16:00	Agirresarobe-Olazar/Bereziartua-Ion	Galarretan	Gaur 16:00	
Jubenilak	Hernani-Gaztedi	Landaren	Gaur 12:00	WATERPOLOA			
Kadeteak	Hernani-Gaztedi	Landaren	Gaur 12:00	Seniorrak	Hernani-Castellae	Kirolegian	Gaur 14:00
Infantilak	Barriz Bilkura	Barritzen	Gaur 10:30	Jubenilak	Hernani-Askartza	Kirolegian	Gaur 15:00
Alebinak	Barriz Bilkura	Barritzen	Gaur 10:30	ARETO FUTBOLA			
				2.maila	Hernani-Gure Txokoa	Kirolegian	Gaur 18:30

FUNERARIA ORBEGOZO

ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala **HERNANI**
Latxunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 ● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
FARMAZIAK ● Egunez: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022 ● Gauez: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA **GAUR** Eguraldiak hobera egingo du. Goizean behe lainoa izango da baina arratsaldean eguzkia nagusituko da. Egunez tenperaturak gora egingo du.
BIHAR Giro eguzkitsua izango da, goizean behe lainoa izango bada ere. Tenperatura minimoek beheera egingo dute. (euskalmet)



❖ **GALDUTAKOAK**

Giltza sorta galdu da

Giltza sorta galdu zen asteazkenean, Paradore inguruan. Larruzko uztai batean daude giltzak. Aurkituz gero deitu: 943 55 57 45. ||

❖ **BITERI**

Ipui kontalaria asteartean

Asteartean, 1.728 animalia kontu ipui saioa izango da haurrentzat, Goringo taldearen eskutik. Arratsaldeko 17:00etan, Biterin. Bestalde larunbatean, Atsegindegi plazan, haurrentzako puzgarriak jarriko dituzte. 16:00etatik 20:00etara. ||

❖ **ELIZA**

Deialdia astelehenerako

Astelehenean Adiskidetzaren eta barkamenaren ospakizuna izango da parrokan, Eguberrietarako prestatzeko. Arratsaldeko 19:30etan, San Joan

Bataiatzailearen parrokan. Bestalde, abenduaren 25etik urtarrilaren 6ra, biak barne, ez da goizeko 08:00etako mezarik izango, igande eta jaiegunetan. ||

❖ **URUMEA IKASTOLA**

Saskiaren zozketa

Gabonetako saskia zozketatu dute Urumea ikastolan eta 498 da zenbaki saritua. Boletoa duenak urtarrilaren 7tik aurrera joan behar du saskia jasotzera, Urumea ikastolako idazkaritzara (Elkano kaleko eraikinean). ||

❖ **KORRIKA**

Arropa jarriko dute salgai

Gaur Korrikako arroparekin postua jarriko dute AEKko kideek. Kale Nagusia eta Karkaba elkar-tzen diren txokoa izango dira. Korrika diruz laguntzeko aukera ere izango da. Korrika 2009ko martxoan izango da. ||

❖ **HARATEGIETAN EUKARAZ-ASTIGARRAGA**

Kanpainako zozketetan sarituak

Hona hemen *Eska ezazu harategia euskaraz* kanpainako Astigarragako sarituak: Artoanea harategian, Urkiri Salaberria eta Ana Arka Montoro; Martin harategian, Karnele Aznar eta Axular Uriarte; eta Aliproxen, Xabi Mujika Maeztu eta Javier Ortiz Gomez. ||

❖ **IRAGARKI MERKEAK** ❖

Sarrera bat aurkitu dugu Plaza Berriko servikutxan, ahaztu duenak deitu: 653 748 350. Pisua salgai, azken pisua. Eguzkitsua, aszensora, ganbara... Deitu: 943 55 04 26
 Taberna salgai Hernaniko kaxkoan 60m2 + almazena 30m2. Deitu: 616 383 168.
 Alokatzeko: Pabiloi industrial berri-berria. 150 m2. Poligonoa: Txalaka Araneder (Astigarraga). 943 33 05 16 (20:00etatik aurrera).
 Etxe berria estrenatu ezazu, hemendik 18 hilabetera, 2 logela, aszensora, 60m2 (249.000euro). Deitu: 671 124 594.
 Etxeko konponketak egiten dira: iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
 BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).
 Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).
 Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta personalizatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Antiacne tratamendua, "Manchas". Plataforma bibratzaila. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.
 Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76
 Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

BALANTXA

ANTZIOLA, 12 943 576115
HERNANI NAGUSIA, 17 943 334022

-%3 *WORLDWIDE BERRIAK*

449€

579€

PREZIO HOBERENAK

MERKEAGO AURKITZEN BADUZU PREZIO HORRETAN SALDUKO DIZUGU